


MAINTON ETA PRAISKU



Liburu hau
Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Sailak
onartu dau.

MAINTON
eta
PRAISKU

BIBIÑE PUJANA

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Bibiñe Pujana

Marraskilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Deposito Legal: BI-1657-1983

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal

MAINTON
eta
PRAISKU

Orain dala urte asko, Olazar deritxon tokian
ola bat egoan; gero, urteen joan-etorriaz ola hori
itxi egin zan eta, bertako ugazabak, bere alboan
Olabarriko errotea egin eban.

Toki orretara biziten "Markos-errota" eta
bere sendia etorri ziran.




“Markos-errota” gizon trebea zan baina bere semea Praisku ere ez jakon atzean gelditzen.

Egun baten aita semeak postureka hasi ziran:


—Amu bakarregaz baietz arrankari bi edo gehiago hartu!, —harria pikatzen egoan tokitik esan eban aitak.

—Ezetz!, erantzun eutsan semeak, uruna edalgiten egoan tokitik.



Baietz eta ezetz, azkenean, dana bertan behera itxi eta, aita semeak, soineko zaharrak jantzi-ta, han joan ziran errotaperantz. Heldu ziranean aita Praiskuri esan eutsan:

—Orain, nik amua gertatzen dodan bitartean, zuk errota biak gelditu egingo dozuz; halan arrainok errotapean harrapauko doguz.



Semea errotatik zan bitartean, aitak errota-
pean "aldik alde", sare bat ipini eban; gero, haga
luze batetik dingilizka amu bakar hori be.

Errotak geldituaz batera antaparak beteten
hasi ziran eta, errotaperantz etozan urak gelditzen.

Praisku errotapera itzuli zan orduko bere ai-
tak ondo kinitu ebazan urarteko harri guztiak, han
egozan arrankariak edo keskailuak sarean sartu ei-
tezan.



Eta, bere semea heldu zaneko, hartu eban amu-hagea eta bota eban uretzara. Praiskuk ondo ikusi eban txoriharra aidean, amutik dingilizka, baina, ostera, ez sarerik ez arrankaririk ez eban ikusten, hain egoan loi ura!

—Aitak, gaur burua makurtu beharko dauala uste dot —inoan bere arterako.




Halako baten, aitek txuagaz eskuak igurdi eta esan eutsan:

—Zer seme, arrankariok aterako ete joguzak ba?

—Bai aita —belarritik belarrirainoko irribarreeguz erantzun eutsan semeak.

Orduan aitek, amua bertan behera itxi, sareari alde bietatik heldu eta... Oi!, bost arrankari eta hamabi keskailu!

Praisku, hartu eban ikareagaz, uretara jausi zan.




—Aita, horrek ez dau balio! —esan eutsan zuntzen zan bitartean.

—Ezetz? ba, esandako moduan, amu bategaz harrapatu dodaz. Txoriharren usainera etorri dozak eta...

Nahiz eta lehenengotan hasarre egon, gure mutilari laster etorri jakon umorea, suetean “arrankari usain” goxoa asmau ebanean.

Gero, ehiotako hartu eta gari zorroak zaldi gainean ipini eta zorro honeen jaubeen etxeetatik banandu ebazan.



Iluntzean, aitak "abarka-zuloak" zarkinegaz konpontzen ebazan bitartean, Praiskuk, amari korta-beharrak egiten lagundu eutsan.

Lan honeek amaitu eta, oiloak otaratu zira-nean, eurak ere lotara joan ziran.

Gabe horretan gure Praisku amesetatsu ibilizan: Behin errotarria egaz ikusten eban, behin gari-garbituteko makinea apurtuta.



Goizalderantz, osterera, amets polit bat egin eban:


Zorro banatzen ebilen egun euritsu baten, sargarpe baten, hiru katakumetxogaz katu-ama aurkitu eban. Euria goian-behean zan eta, ahalegin handiak egin arren, katu-ameak ezin ebazan hiru katakumetxoak batera estali.



Praiskuk urunez zuritutako buruan eukan txapela hiru palutxoren gainean ipini eban eta katakumeok estaltzeko moduko aterpea egin; gero, bere bidetik jarraitu eban.

Handik lasterrera, erdi negarrez, neska kolore-gorri bat aurkitu eban.

—Ene neskato! Nor zara? Zergaitik zagoz erdi negarrez?



Ni Maintontxo naz eta, nire katuak hiru katakumetxogaz etxetik alde egin daualako nago erdi negarrez. Baten bat erre kara botako deutzagula pentsatu dau eta..., begitu, orain euri zaparrada honen hilgo deutzoz hirurak.

Praiskuk, sudur-zapitzat erabilten eban trapu txatala boltsatik atera eta, negar anpoluak kendu eutsazan.



Gero, esan eutsan:

—Ez zaitez arduratu hirurak txapelpean itxi dodaz eta...

—Egia ez da izango? Orraitiño liño ederragaz zapi polit bat josiko deutsut ba!


Baina, ai umetxoak; argi kanpaiak jo eta gure Praisku itzartu egin zan.



—Praisku! Antaparak garbitzeko jagi beharko dogu ba —esan eutsan aitak bere gelatik.

Birritan pentsatu barik, aitiaren bat egin, pra-ka zaharrak garrikoagaz ondo lotu, buruan txapel zuria ipini eta gosaltzeko, suetera joan zan.

Arto-sopaz bete-bete eginda, porponta zabal-
duten joan zan.




Aita semeok behar hori egiten eabilzala, anta-
para gaintetik egoan estartatik joskile galant bat
etorrela ikusi eben. Besapean josteko makinea
ekarren.

—Horixe dok! —esan eban Praiskuk.

—Nor? —itandu eutsan aitik izerdia kentzen
eban bitartean.

—Ba, nor izango da ba, nire amesetako Main-
tontxo!



Aita eta Praisku konturatu orduko joskilea euren ondoan egoan, irribarreka.

—Egunon, aita- seme errotariok!

—Egunon! erantzun eutsan Markosek. Prais-kuri, berbeak ere ez eutsan urteten.


—Nor eta nongoa zara ba?, —itandu eutsan Markosek.

—Ni Kasilda Orozkokoaren lobeaz naz, izekoari lagunduten etorri naz.



Joskilea bada, prakei txatalak ipinten geurera
be etorri beharko dau, ezta aita? —esan eban Prais-
kuk.

Pozik be joango zala esan eta aita-semeok
euren lanean itxita, bere bidean jarraitu eban joski-
le kolore gorriak.




—Aita, posture bat egin behar dogu!, —esan eban dar-dar egoan Praiskuk.

—Ia ba, bota!


—Ba, baietz errotarien semea, jostile kolore gorri polit bategaz ezkondu?

—Hori, denporeak esan beharko jok!



—Dana dala ta, ba dakik gero, joskilea bizi dan etxean, babak egosi barik jan behar izaten dozakela?

—Bai, baina, nire poltsikoan liño ederrezko zapia ez da faltako...



Errazoi faltarik ez eukan Praiskuk. Handik urte gitxira ezteguak ospatu ziran eta, Markosek, nahiz eta posturea galdu, Maintontxo errentzat oso pozik hartu eban.

“Handik atzine” Olabarriko errotan zoriontasuna sekula ez zan faltau.



UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Felix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUAMETS, Juan txu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Felix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Felix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Eburne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramon Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria

